



Donostia. 2025eko irailaren 10.

Lankide agurgarriak:

Zuekin harremanetan jartzen gara hurrengo Gabonetako Artisautza Azokari buruz informatzeko.

Hasiera batean azoka Urdaneta–Errege Katolikoetan izango da, ohikoa den bezala, baina udalak oraindik ez digu baieztatu, Koldo Mitxelenako obrak amaitu gabe daudelako.

Kokapen hau izango dugulakoan deialdia irikitzen dugu.

Ziurtzat esan dezakeguna da azoka egingo dela, kokalekua hau edo beste bat izan.

KOKAPENA: Urdaneta–Errege Katolikoak (baieztatzeke)

DATAK: abenduaren 13tik urtarrilaren 05era arte

STANDEN EZAUGARRIAK:

- Melaminazko errotuludun standak karpa azpian, tarimazko zoruarekin.
- Karpak argiztapena, eta giro-musika izango du. Stand bakoitzak korrante-hargune bat dauka (gehienezko potentzia: 1000 W).

Argi edo fokoak edo berogailu bat ekarri behar ba duzu kontsumo baxukoak izan behar dira.

Fokuren bat

- Azokak publizitatea eta zaintza izango ditu.

PREZIOAK NEURRIAREN ARABERA: (%10 BEZa barne).

- 3 x 2 neurriko standak 1.527,00 €
- 4 x 2 neurriko standak 2011,00 €

AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA:

- ✓ Behar bezala osatutako eskaera (web orritik zuzenean, paperean ez)
- ✓ Artisau karneta.
- ✓ Autonomoen azken hiru ordainagiriak.
- ✓ Egindako lanen eta stand osatuaren 4 argazki. Tailerraren ibilbidea.
- ✓ Lan teknikak.
- ✓ Kosmetika produktuen kasuan, dagozkion osasun zertifikatuak.

Eskaera eta gainontzeko dokumentazioa lurkolektiboa@gmail.com emailera bidali behar da urriaren 3a baino lehen.

PARTEARTZE BALDINTZAK:

1. Standak LUR Kolektiboak ezarritako ordutegian irekita egon beharko du, ezingo da hutsik egon arrazoi justifikatu batengatik izan ezean; nolanahi ere, horrela izatekotan aldeztu aurretik jakinarazi beharko da.
2. Standa behar bezala akreditaturik egongo den tailerreko kide batek zaindurik egon beharko du.
3. Bitxigintza eta urregintza sektorekoak ez diren tailerren kasuan, gehienez ere, erakusgai jarritako produktuen % 20 izan ahalko dira arlo hauei dagozkienak.
4. Muntatutako piezak ezingo dira erakusgai jarri eta artisauaren lantegian bertan fabrikatu ez diren artikulak ezingo dira saldu.
5. Erakusgai jarriko den materiala eskaeran aurkeztutakoarekin bat etorriko da. Hala izan ezean, Kolektiboak eskubidea dauka standa azokatik kendu edo eskaerarekin bat ez datozen piezak baztertzeko.
6. Gutun hau jasotzeak ez du esan nahi azokarako hautatu zaitugunik. Ezinbestekoa da onarpen gutuna jasotzea.

Argibiderik behar izanez gero, deitu telefono-zenbaki hauetara: 673679620 10:00etatik 14:00etara (Marian) edo 633330586 16:00etatik 20:00etara (Marta), edo idatzi helbide honetara: lurkolektiboa@gmail.com

Har ezazue agur bero bat,

LUR KOLEKTIBOA

LUR KOLEKTIBOA